



LITERAKTUM

Hitzen hiria

**DAVID GROSSMAN ETA LEILA SLIMANI, MUNDU MAILAKO LITERATURAREN BI IZEN
HANDI BESTEREN ARTEAN 2021EKO LITERAKTUMEN**

Azaroaren 8tik 21era bitartean egingo da aurtengo Literaktum jaialdia Donostiako hainbat espaziotan eta urtero legez, lankidetzaz sare zabalarekin lanean jarraituko du, nola ez, jatorrizko helburuari eutsiz: literaturara hurbiltzea, bestelako lengoia eta diziplinei zein egungo eztabaidei lotuta.

Mundu mailako literaturaren izen ezagunak hartuko ditu jaialdiak. Man Booker Prize sariaren irabazle eta hainbat urtetan, Nobel sarirako hautagai izan den **David Grossman** esaterako, *La vida juega conmigo* azken lanaz arituko zaigu besteak beste Literaktumen. **Leila Slimani** frankomarroarra, 2016an Goncourt Saria irabazi ondoren, Frantziako letren lehen mailan kokatu da eta *El país de los otros* azken lana izango du hizpide eta **Isabela Figueiredo** Portugaldarrak haurtzaroan Maputon bizi izandakoez hitz egingo digu, *Cuaderno de memorias coloniales* lana bide dela.

María Dueñasek eta **María Belmontek** ere, *Sira* eta *En tiempos de Dioniso* eleberriak aurkeztuko dituzte eta **Eider Rodriguezek** eta **Kirmen Uribek** berriz, oraindik argitaratu ez dituzten azken lanen nondik norakoak azalduko.

Literaktum jaialdia Donostiako hainbat espaziotan gauzatuko da, hala nola: **Antzoki Zaharrean**, Donostiako **Kultur Etxeetan**, Liburutegi Nagusiko **San Jerónimo aretoan**, **Koldo Mitxelena Kulturunean**, **Tabakaleran**, **Kutxa Kultur aretoan**, eta **San Telmo Museoan** besteak beste. Betiko lankidetzaz asmoari ere eutsiko dio jaialdiak lurraldeko erakunde ezberdinekin elkarlanean, literatura hiri osora zabalduz.

HARREMANETARAKO

T. (0034) 943 48 3 8 40

E. kulturekintza@donostia.eus

www.literaktum.eus